



Getxo
bizi ezazu

Orri kopurua / Nº de páginas:

Data / Fecha:

PRENTSA-OHARRA / NOTA DE PRENSA

2019ko aurrekontu parte-hartzaileen lehenengo fasea abian da

Ekainaren 15etik uztailaren 15era bitartean 2019ko aurrekontu parte-hartzaileen lehenengo fasea garatuko da. Horretarako Udalak milioi bat euroko diru-saila esleitu du.

Getxotarren teknika edo ekonomiaren aldetik bideragarriak diren proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte; Getxon bizi diren herritar guztien interesa edo onura lehenesten dituztenak, eta arlo hauei lotutakoak, udal-eskumenekoak baldin badira: Kultura, Euskara, Berdintasuna, Gazteria, Ingurumena eta Gizarte Zerbitzuak.

Ezin izango dira aurkeztu hurrengo hauek: Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuekin erlazionatutako proposamenak: kaleak atontzea, ondarea, etxebizitza...; udal-eskumenekoak EZ diren proposamenak; udalerraren lurralde-oreka bermatzen EZ duten proposamenak ezta proposamena gauzatzeko ardura pertsona, erakunde zein talde zehatz batek badauka; izan ere, proposamena lehenetsi eta udal aurrekontuen proiektuan txertatuz gero, dagokion udal sailak kudeatu eta bideratuko du.

Prozedura

Proposamenak honako pertsona hauek planteatu ditzakete: Getxon erroldatuta dagoen 16 urtetik gorako edozein herritar; ordenamendu juridikoarekin bat etorrita, nortasun juridikoa duen elkarte, fundazio, sindikatu, enpresa-elkarte, elkargo, zuzenbide publikoko korporazio edota beste mota bateko erakunde baten ordezkaria.

Proposamenak aurrez aurre edo online egin daitezke eta jasotzeko ezarritako bideak ondorengo hauek izango dira:

1. Udal webgunean erabilgarri dagoen inprimaki digitala betez www.getxo.eus
2. Herritarren Arretarako Bulegoetan (HAB) eta Andra Mari, Gobela eta Fadurako kirodegietan jarriko diren kutxetan erabilgarri dauden inprimakiak betez eta entregatuz.
3. Proposamena(k) (eskaneatutako eranskin gisa) helbide elektronikoko honetara bidaliz: gobernuirekia@getxo.eus
4. Algorta, Areeta eta Bidezabal geltokien inguruan jarriko diren postontzietan inprimakia sartuz.



Getxo

bizi ezazu

Proposamenak aurkezteko azken eguna 2018ko uztailearen 15a izango da.

Ondoren, udal teknikariek aztertuko dute herritarren proposamenen bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa. Baldintza guztiak betetzen dituzten proposamenak proiektu bilakatuko dira.

Udalak jakinaraziko du aukeratutako proiektuen behin betiko zerrenda eta, bigarren fasean, Getxoko bizilagunek lehenetsiko dituzte proiektuak. Behin prozesua amaituta, herritarrentzako itzulketa txostena egingo da eta, bertan, hartutako proposamen eta erabakien arrazoiak azalduko dira.

Informazio gehiago: <http://www.getxo.eus/eu/gobierno-abierto>

Prentsa Bulegoa: 94 466 03 20.

Eskatzen dizuegu ohar hau zabaltzea. Eskertzen dizuegu halako arreta izatea beti. Adeitasunez.